

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Estatuak toki entitateen zorpetzearen aurka aurkeztutako konstituzioaurkakotasun-errekurtsoan aurkeztea erabaki du

Defentsa eta ordezkaritza Foru Gobernuko aholkularitza juridikoaren esku utzi ditu

Lunes, 18 de abril de 2011

Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, José Luis Rodríguez Zapatero Espainiako Gobernuko presidentek ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legearen aurka sustatutako konstituzioaurkakotasun-errekurtsoan agertzea adostu du. Hain zuzen ere, Foru Lege hori dela bide, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dira.



Foru arauak toki entitateei zorpetzea baimentzen zien oinarritzko zerbitzuetan inbertsioak egiteko.

Nafarroan neurriak 90 entitate publiko ukitzen ditu, eta aurreikusitako inbertsioak 44 milioi eurora artekoak dira. Kopuru horretatik, udalek 10,1 milioiko ekarpena egingo dute. Azpiegiturak horiek egiten ez badira, 2.200 lanpostu baino gehiago ukituko dira.

Errekurtsoa aipatu legearen 8.2 artikularen aurka zuzenduta dago. Artikulu horren arabera, Foru Gobernuak baimendutako toki-entitateen inbertsioetarako zorpetzea egiteko aukera dago, Toki Administrazioiko Departamentuak proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa egiaztatzen duenean. Espainiako Gobernuak ez dago egokitzapen horrekin ados.

Zehatz esanda, aipatu artikularen arabera, 2005-2008 eta 2009-2012 aldietarako Azpiegituren eta Toki Inbertsioen Planetara bildutako lanak dituzten toki entitateek "dagokien ekarpen portzentajea finantzatzeko kredituak ituntzen ahalko dituzte, behin Toki Administrazioiko Departamentuak proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa egiaztaturik". Azpiegituren eta Toki Inbertsioen Planetara bilduta ez dauden gainerako inbertsioen kasuan, "kredituak ituntzen ahalko dira, baldin eta aurretik Toki Administrazioiko Departamentuak baimena ematen badu, kontuan harturik aplikatzekoa den foru araudia eta 2011. urterako defizit publikoa murrizteko helburuak. Helburu horiek Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak hartzen dituen maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuan zehaztu ziren".

Segurtasunik eza toki enteentzat

Foru Gobernuak joan den apirilaren 6an Konstituzio Auzitegiaren idazkia jaso zuen, eta hori dela bide, konstituzioaurkakotasun-errekurtsoaren izapidetza onartu dela jakinarazi zitzaion. Modu horretan, prozesuan agertzeko eta komenigarritzat dituen alegazioak formulatzeko aukera eman zitzaion.

Jakinarazpena

[Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen bi egun geroago](#) . Horrekin batera, aurkaratutako manuairen kautelazko etete-agindua eman da, eta [Foru Gobernuak agindu hori bertan behera uzteko eskatu du, Nafarroako toki entitateentzat sortzen duen "segurtasunik eza juridikoa" dela eta](#) . Izan ere, toki entitateek lanak abian jarrita dituzte saneamendu, argiteria, zoladura eta sareen arloetan "oinarrizko azpiegiturak" eraikitzeko.

Nafarroako Gobernuak, gaurko akordioan, prozesu honetan defentsa eta ordezkaritza Foru Gobernuaren aholkularitza juridikoaren esku utzi du, eta auzian sortutako gastuetarako aurrekontuko partida zehaztu du.